



Otso Ergela

Aspaldi-aspaldian gertatu zen istorio hau, hiri handi eta gris batean. Gosete handi bat zabaldu zen lurralde hartan eta jendeak oso gaizki pasatzen zuen, premiazko gauzarik gabe. Hiriko agintariek bulego bat antolatu zuten jende behartsuari nolana hiko laguntza emateko, eta ilara luzeak osatzen ziren egunero ate ondoan. Han biltzen ziren guztiek haien beharrak adierazten zituzten, banan bana: Batek lo egiteko leku bat behar zuen edota janari pixka bat... Beraien tristurak kontsolatzeko, animo apur baten bila ondoratzen ziren beste batzuk...

Astearte goiz hartan, inoiz baino jende gehiago bildu zen ate haren ondoan; baina, halako batean, otso goseti bat inguratu zen eta jende guztia ihesi joan zen, noraezean. Otsoa hortz zorrotzen artean xuxurlaka zetorren:

–Hau gosea, hau goseaaaa!!

Bulegoaren arduraduna dar-dar hasi zen:

–Zer behar duzu?

– Goseaaaa! Hau goseaaaa!

– Zoaz basoko ertzera. Han aurkituko duzu zaldi bat hesi bati lotuta. Esaiozu, nire orde zozela, eta zure gosea asetzeko bera jango duzula. Paper honetan hori dena esaten du...

Otsoa haizea bezain azkar abiatu zen basoaren ertzera eta han aurkitu zuen zaldia lotuta. Zaldia ikusi zuenean, pausoa mantsotu egin zuen eta bere betiko leloa xuxurlatzen hasi zen, hortz zorrotzen artean:

– Goseaaaa! Hau goseaaaa!

Zaldia dar-dar batean hasi zen, irrintzika eta ostikoka.

– Egun on, zaldi jauna. Hara, hiriko bulegoan zu jateko esan didate, hori dena adierazten duen paper hau eman didate.

Zaldiak adi-adi begiratu zion paperari, eta han jartzen zuena poliki irakurri ondoren, eztatia argitu, eta hotz-hotz esan zion otsoari:

– Nahastu egin dira bulegoan, zeharo! Beste zaldi batengatik ari dira agidanez. Begira, niri aspaldian eman zidaten paper batean, argi eta garbi adierazten da, ni inolako animaliarik ezingo nauela jan!



- Non daukazu paper hori?
- Gorde egin nuen aspaldian.
- Non, ordea? – Esan zuen otsoak urduri. –Atzeko hanka artean sartu nuen.

Otsoak, presa handia zuen zaldia jateko, eta arrapalada batean haren atzeko hanka-arteaz aztertzen hasi zen.

Gorago, pixka bat gorago... – Esaten zion zaldiak. –Aurrerago, pixka bat aurrerago... –Jarraitu zuen zaldiak.

Eta otsoa gertu-gertu zegoela nabaritu zuenean... Berealdiko ostikada eman zion otsoari muturraren erdi-erdian. Eta otsoak alde egin zuen handik, lehen bezain gose handiz eta, gainera, muturra okertuta. Hura kuxidada!

Itziar Zubizarreta

Oharra: Seguruenik, gure geletan haur asko izango dira egoera gogorra bizitzen ari direnak. Otsoa janari bila doa, baina zaldiak ere bizimoduari aurre egin behar dion horretan, zuhurtziaz jokatu eta irabazten dio otso gosetiari...